

Udaltzaingoa 943 008090 – Lapurretei buruzko aholkuak eta gomendioak

Udaltzaingoa 943 008090 – Lapurretei buruzko aholkuak eta gomendioak

Lapurretan nola erantzun jakitea garrantzitsua da ondorioak ahal den neurrian txikiagotzeko. Ezagutu itzazu halako egoerak saihesteko zenbait aholku eta jakin ezazu zer egin lapurreta egiten badizute.

Lapurreta saihesteko aholkuak

Lapurreten biktima ez izateko ezinbestekoa da zenbait jokabide eredu betetzea. Ondoren, delitugileen ekintzak eragozteko xede duten hainbat aholku ematen dira; kalean, zure etxean edo zure autoan.

Kalean

- Ahal den neurrian, saihestu toki bakartiak edo argi gutxikoak.
- Gainean beharrezko dirua soilik eraman eta hainbat sakeletan banatu.
- Zaindu gauza pertsonalak.
- Eraman poltsa aurrealdean gurutzatuta.
- Saiatu kutzazain automatikoak bulegoak zabalik dauden ordutegian erabiltzen, erabili barrualdeko kutzazainak eta ez ahaztu atea blokeatzea barruan zauden bitartean.
- Egin oihu laguntza eskatuz, erasotzailea izutzeko eta besteei ohartarazteko.
- Egin uko kaleko salmentei eta ez onartu loreen edo bestelako objektuen eskaintza saltokietatik kanpo. Zalantzako jatorria eta kalitatea dute eta iruzurra dira.

Etxean

- Itxi atea giltzaz kanpora joaterakoan.
- Saiatu baliozko objektuak ez metatzen eta, baliozko gauzak izanez gero, egin inbentario bat.
- Gorde dokumentu garrantzitsuak, batez ere zure sinadura dutenak (aurrezki-libreta, ordainketa-txartelak...).
- Ez utzi ezezagunei besterik gabe sartzen, eskatu egiaztagiriak zerbitzu teknikoetako kideei eta egiaztatu baliozkoak direla enpresarekin telefono bidez harremanetan jarrita.
- Egiaztatu leiho eta ate guztiak, garajekoa bame, ondo itxita daudela, kanpoan luzaroen egon behar ez duzunetan ere.
- Aldatu sarraila etxe berri batean kokatzean, giltzak galtzean edo, etxean konponketak egitean langileren batek giltzak eskura izan baditu.
- Deitu Udaltzaingoari bizilagunen baten etxean zerbait arraroa antzemanaz gero.
- Etxera iristean sarraila bortxatuta badago, ez sartu. Arrastoak ezabatu ditzakezu edo lapurrak oraindik barruan egon daitezke. Deitu berehala Udaltzaingoari.
- Ez esan jendaurrean oporretan zoazela eta etxea hutsik utziko duzula.

Autoan

- Ez ahaztu atek, maletategia eta kapota ondo itxita eta leihoak jasota uztea.
- Saiatu ibilgailua ondo argizatutako eremuetan, jendea dabilen lekuetan edo horretarako prestatutako aparkalekuetan uzten.
- Komunitateko garaje batean aparkatzen baduzu, sartzean eta irtetean, egiaztatu garajeko atea erabat itxita geratu dela. Susmagarri iruditzen zaizun pertsonaren bat ikusten baduzu, deitu Udaltzaingoari (943 362442).
- Ez utzi sekula etxeko giltzak edo garajeko kontrola ibilgailuaren barruan.
- Autoak irrati finkoa badu, estali ezazu. Auto-irratia ateragarria bada, atera ezazu segurantz handiagoa izateko.
- Ez utzi agerian baliozko gauzak (ezta atzeko erretiluan ere) edo gailu teknologikoak daudela adierazi dezaketen objektuak (ordenagailuak, pda-rako euskarriak, nabigatzaileak...)
- Zuhur jokatu baliozko objektuak maletategian sartzean.
- Erosketa azkarrak egiterakoan, ez utzi ibilgailuaren motorra abian eta atek zabalik.
- Semaforotan, gasolindegietan eta bestelako tokietan geratzean, adi egon eta saiatu leihoak itxita eta atek blokeatuta izaten, lapurretak saihesteko.
- Aldi baterako kanpora bazoaz, ez utzi ibilgailua luzaroen toki berean aparkatuta eta eskatu norbait autoa tokiz aldatzeko, bazterrean utzita dagoela eman ez dezan.

Aurrez neurri guztiak hartu arren, ibilgailua edo barruko gauzak apurtzen badizkizute, saiatu autoa eta erasandako zatiak ez ukitzen. Jo ezazu Udaletxera gertatutakoa salatzen eta jarraitu udaltzainen argibide eta aholkuei.

Policía Local 943 008090 - Consejos y recomendaciones sobre robos

Policía Local 943 008090 - Consejos y recomendaciones sobre robos

Saber cómo responder en caso de robo es importante para minimizar en lo posible sus consecuencias. Conozca algunos consejos para evitar estas situaciones y sepa qué hacer si es víctima de un hurto.

Consejos para evitar un robo

Para evitar ser víctima de un robo es necesario seguir unas pautas de comportamiento. A continuación, se ofrecen una serie de consejos dirigidos a dificultar la acción de los delincuentes; en la calle, en su casa o en su coche.

En la calle

- En la medida de lo posible evite transitar por lugares solitarios o poco iluminados.
- Lleve sólo el dinero necesario y distribúyalo en diferentes bolsillos.
- No pierda de vista sus objetos personales.
- Lleve el bolso cruzado sobre la parte delantera.
- Procure utilizar los cajeros automáticos en horario de apertura de oficinas, utilice los cajeros interiores y no olvide bloquear la puerta mientras esté dentro.
- Grite pidiendo socorro para intimidar al asaltante y llamar la atención de otras personas.
- Rehúse la venta ambulante y rechace el ofrecimiento de flores u otros objetos fuera de los establecimientos comerciales. Son de dudosa procedencia y calidad y constituyen una estafa.

En casa

- Cierre la puerta con llave, siempre que vaya a ausentarse del domicilio.
- Procure no acumular objetos de valor y en caso de tenerlos haga un inventario.
- Oculte la documentación relevante, especialmente aquella que contenga su firma (libretas de ahorro, tarjetas de pago...).
- No facilite la entrada a desconocidos ni desconocidas, pida la acreditación a los servicios técnicos y compruebe su validez por teléfono con la empresa.
- Compruebe que todas las puertas, incluida la del garaje, y ventanas estén bien cerradas, aunque se vaya a ausentar poco tiempo.
- Cambie la cerradura siempre que se instale en una vivienda nueva, cuando haya perdido las llaves o si ha realizado obras y algún trabajador ha tenido acceso a ellas.
- Avise a la Policía Local si percibe algo extraño en la casa de un vecino.
- Si al llegar a casa encuentra la cerradura forzada no entre, ya que podría borrar huellas o encontrarse con los ladrones aún dentro. Avise rápidamente a la Policía Local.
- No comente en público si va a salir de vacaciones y va a dejar su casa vacía.

En el coche

- No olvide dejar puertas, maletero y capó correctamente cerrados, y las ventanas subidas.
- Procure aparcar su vehículo en zonas con iluminación y transitadas, o en los aparcamientos habilitados al efecto.
- Si aparca en un garaje comunitario, compruebe, al entrar o salir de él, que la puerta del mismo queda completamente cerrada. Si observa alguna persona que le infunda sospechas, no dude en llamar a la Policía Local (teléfono 943 362442).
- Jamás deje las llaves de su domicilio o el mando del garaje en el interior del vehículo.
- Si tiene instalado aparato de radio -de los fijos- tápelo. En caso de ser extraíble, retírelo para mayor seguridad.
- No deje elementos de valor a la vista (ni tan siquiera en la bandeja trasera), ni aquellos objetos que puedan servir para identificar la presencia de aparatos tecnológicos (ordenadores, soportes para pda, navegadores...)
- Sea discreto/a cuando introduzca objetos de valor en el maletero.
- Si realiza una compra rápida, procure no dejar el vehículo arrancado y con las puertas abiertas.
- Cuando se detenga en un semáforo, gasolinera u otros lugares, esté alerta y procure tener las ventanas subidas y las puertas bloqueadas para evitar sustracciones.
- Si sale de viaje o se ausenta durante una temporada, no deje su vehículo mucho tiempo estacionado en el mismo lugar, procure que alguien se lo mueva, para que no parezca abandonado.

Si a pesar de todas las precauciones, le sustraen el vehículo o los efectos del interior, procure no tocar el coche ni las partes afectadas. Acuda al Ayuntamiento para denunciar el hecho y siga las instrucciones y consejos de los agentes de policía.